

Eibarko Udaletxeko Protokoloa

gertakari
arrazista, xenofobo, antigitano edota
LGTBIfobikoen aurrean jarduteko
2024ko urria



**Eibarko Udalaren protokoloa
gertakari arrazista, xenofobo,
antigitano edota LGTBIfobikoen
aurrean jarduteko**



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

#biltzen

Gizarteratzea eta Kulturarteke Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

AURKIBIDEA

1Aurkezpena	3
1. Sarrera	4
2. Funtsezko kontzeptuak	5
3. Jarduteko printzipioak.....	9
3.1. Biktima beti erdigunean	10
3.2. Sareko lana	11
3.3. Printzipio demokratikoetara egokitzea	11
3.4. Proporzionaltasuna erakundeen erantzunean	12
4. Prozedurak	13
4.1. Biktimari eman beharreko arreta.....	13
4.2. Bideratzeak.....	15
4.3. Erakundeen erantzuna	16
4.4. Erregistro estatistikoa	20
4.5. Bestelako motibazio eta delituak.....	21
4.6. Diskriminazioaren aurkako entzumen-sare lokala	21
4.7. Protokoloaren jarraipena	22
5. Bideratze-, kontraste eta koordinazio-baliabideen zerrenda	22
6. ERANSKINAK.....	25
I. Eranskina. Udal-webgunerako eta –aldizkarirako albistea	25
II. Eranskina. Adierazpen instituzionala	25
III. Eranskina. Adierazpen instituzionala eta kontzentrazio-deialdia	26

Jarduketa-protokolo honen helburua

Eibarko Udalaren jarduera instituzionala bideratzea gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edota LGBTIfobikoen aurrean, eragile pribatuen edo partikularren artean ematen badira, udal-mugartearen barruan, bai eremu publikoan bai digitalean. Hori guztia ekintza horrek biktimarengan eta bizikidetzakomunitarioan izan dituen ondorioei erantzun egokia eta proportzionatua emateko helburuarekin.

Aurkezpena

Tratu-Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza oinarrizko printzipio demokratikoa da erakunde publikoen funtzionamenduan eta herritarren eskubideetan eta betebeharretan berdintasunezko bizikidetzaz lortu nahi duten gizarteetan, jatorri nazionala, fenotipoa, praktika kulturalak, sinesmen erlijiosoak, sexua, sexu-orientazioa eta -identitatea eta abar alde batera utzita.

Hala ere, gorrotozko gertakarien kopuruak gora egin du Euskadin azken urteotan, eta gero eta garrantzi sozial handiagoa du. Gertakari horiek segurtasun-gabezia, ahultasuna eta inpaktu komunitario handia eragiten dituzte. Dena den, horrek esan nahi du egiturazko gai baten aurrean gaudela, eta gorroto-diskurtsoak nabarmen handitu direla. EHUKo Giza Eskubideen Katedraren "Euskadin izandako gorroto-gertakariei buruzko urteko txostena" dokumentuak adierazten duenez, Eibarren, 2023an, hiru gorroto-gertakari salatu ziren. Datu hori onartezina izanik ere, herrian gertatzen diren gorabeheren parte txiki bat baino ez da, izan ere, gertakari gehienak ez dira ez salatzen ez jasotzen.

Egoera horren aurrean, hainbat baliabide, zerbitzu eta sare ditugu errealitate horri heltzeko, baina koordinazio hobea eta handiagoa falta zaigu, batez ere biktimen arretan. Herritarrek eta, batzuetan, erakundeek ez dakite horrelako egoeren aurrean nola jokatu behar den, eta horrek zaugarritasunaren eta arretarik ezaren pertzepzio orokorra, baita estigmatizazioa ere, indartzen du.

Eibarko Udalak, errealitate hau aintzat hartuz eta giza eskubideekin duen konpromisotik, dokumentu hau egin du, Biltzen Integraziorako eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren laguntzarekin. Dokumentuak hiru begirada ditu: migratzailea, ijitoa eta LGTBI. Kontzeptu giltzarriak argitu eta jarduketa-prozedura bat ezartzen du gerta daitezkeen intzidenteen aurrean.

Dokumentu berritzailea da, eta berrikusi egingo da eragile instituzional eta sozialekin, lantzeko prozesuan egin den bezala. Gainera, protokoloak hainbat helburu ditu: biktimei behar bezalako erantzuna ematea, gizartea sentsibilizatzea gertakariak gerta ez daitezkeen, edo arrazakeriaren, xenofobiaren, LGTBifobiaren eta antigitanismoaren ezkutuko aurpegia azalera.

Jon Iraola Iriondo

Eibarko alkatea

1. Sarrera

2022 urteko uztailan, Eusko Jaurlaritzak jarduketa-gida bat argitaratu zuen gorrotozko gertakarien aurrean, tokiko entitateei zuzendua. Oinarrizko dokumentu bat zen, sakontze- eta errealitatera egokitzeko lan bat egiteko EAEko udaletan.

Gorrotozko gertakarien bilakaerak adierazten du egiturazko gai baten aurrean gaudela, eta gorroto-diskurtsoak nabarmen handitu direla.

Izan ere, Giza Eskubideen Unesco Katedraren (EHU/UPV) 2023ko gorrotozko gertakari buruzko txostena argitaratu berri da, eta bertan adierazten denez, gorroto-gertakari horiek gehien sufritzen dituzten pertsonak atzerritarrak, LGBTI kolektiboa eta ijito-herria dira, eta erasoak, mehatxuak, gorroto-diskurtsoa, koakzioak edo tratu iraingarriak dira gertakari horien modu ohikoena.

Txosten horren arabera, istilu horiek batez ere espazio publikoan gertatzen dira (kalea, merkataritzako eta ostalaritzako lokalak) eta, jarraian eremu pribatuan, bereziki etxebizitzetan eta Interneten

Herritarrek eta, batzuetan, erakundeek ez dakite horrelako egoeren aurrean nola jokatu behar den, eta horrek zaugarritasunaren eta arretarik ezaren pertzepzio orokorra, baita estigmatizazioa ere, indartzen du.

Egoera horren aurrean, hainbat baliabide, zerbitzu eta sare ditugu errealitate horri heltzeko, baina koordinazio hobea eta handiagoa falta zaigu, batez ere biktimen arretan.

Protokolo hau, hain zuzen, udal-arduradunei gorroto-gertakari arrazistak, xenofoboak, LGBTIfobikoak eta antigitanoak kudeatzen lagunduko dieten tresnak izateko beharretik sortu da aipatutako Gidak jasotako arau, printzipio eta jarraibide orokorrak oinarri hartuta.

Horretarako, Eibarko Udalak, *Biltzen* Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren (zeina beste erantzukizunen artean, *Eraberean* tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den) laguntza izan du. Prozesuak sei lan-saio izan ditu, toki-eragile ezberdinen parte-hartzearekin. Hauexek izan dira toki-eragileak: Kultura-Aniztasun teknikariak, Berdintasunekoa, Andretzekoa, Udaltzaingoko kideak, Emakumearen Mahaiaren ordezkariak, jatorri latinoamerikarreko etxeko langileen ordezkariak, Empalabramiento programaren arduraduna, emakume magrebtarren ordezkaria, Senegalgo komunitateko ordezkaria, ijitoen komunitateko ordezkaria eta Oinarrizko Heziketako Udal Institutuko ordezkaria.

Prozesuan udalerriko berriazko berezitasunak eta inguruabarrak hartu dira kontuan Protokolo hau egiteko, udalerrian gertatzen diren gorrotozko gertakari arrazista, LGBTIfobiko eta antigitanoei erantzun koordinatua emateko. Tresna hau udalerriko errealitatera moldatzea izan da lehentasuna (baliabideak, poblazioa etab. kontutan hartuz), eduki orokorrak moldatuz eta ikuspegi eta jarduteko modu berriak proposatuz.

Nolanahi ere, Protokolo bat da, tresna erabilgarria izan nahi duena, gerta daitezkeen gorroto-gorabeherei aurre egiteko ez ezik, baita sentsibilizazio- eta prebentzio-prozesuak ezartzeko ere. Horregatik, diskriminazioari erasoetatik harago heltzen dio dokumentuak

funtsezko kontzeptuei, jarduteko printzipioei eta ekintza zehatzen proposamenari buruzko informazioa emanez, ikuspegi intersektional batetik, pertsona guztien giza eskubideen errespetuan oinarrituta.

Dokumentuak, halaber, kolektibo edo populazio-talde jakin batzuen espezifikotasuna ikusarazi nahi du, ikuspegi hirukoitz bat eskainiz: migrantea, ijitoa eta LGBTI.

2. Funtsezko kontzeptuak

Jarraian, dokumentu honetan zehar erabiltzen diren kontzeptu eta termino batzuen definizioa jasoko dugu, hobeto ulertzeko eta gida honen esparruan erantzuna jasoko duten gorabeherak baloratzeko orientabide gisa erabiltzeko.

Diskriminazioa ¹

Arraza², kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste mota batekoa, jatorri nazionala edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein gizarte-egoera bezalako motiboetan oinarritzen den bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehenetasuna da, Eta pertsona guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasunez aitortzea, gozatzea edo gauzatzea deuseztatzea edo kaltetzea du helburu edo emaitza.

Diskriminazio motak.

- Zuzeneko diskriminazioa³: pertsona bat antzeko egoeran dagoen beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean, arraza- edo etnia -jatorriagatik, erlijio edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik.
- Zeharkako diskriminazioa⁴: legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, klausula konbentzional batek edo kontratu-klausula batek, itun indibidual batek edo alde bakarreko erabaki batek, itxuraz neutroak, pertsona bati desabantaila partikularra eragin diezaioketenean arraza- edo etnia -jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-joera direla-eta, betiere objektiboki helburu legitimo bati erantzuten ez badiote eta helburu hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak ez badira.
- Jazarpen diskriminatzailea⁵: pertsona baten arraza- edo etnia-jatorriarekin, erlijioarekin edo sinesmenekin, desgaitasunarekin, adinarekin edo sexu-joerarekin zerikusia duen jokabide oro, pertsona horren duintasunaren aurka

¹ Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordearen 18. ohar orokorra.

² Arraza terminoa legezko testuetan eta lagunarteko planoan gizakien arteko zenbait aldakuntza fisiko eta larru-kolore aipatzeko erabiltzen den arren, adostasun zientifiko bat dago esateko giza espeziean ez dagoela arrazarik, fenotipoak baizik, hau da, pertsona bakoitzak bere geneen eta ingurunearen arteko elkarrekintzaren emaitza gisa dituen karaktere ikusgarriak. Arraza gaitasunen arteko ezberdintasuna eta diskriminazioa justifikatzeko erabili den kontzeptua da. Nolanahi ere, termino hori erabiltzen bada legeriak normalean eta, akats baten ondorioz edo nahita, beste arraza batekotzat jotzen diren pertsonak babesten dituela bermatzeko da.

³ 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, integrala tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezarako

⁴ Id.3.

⁵ Ibid.

egitea eta larderiako ingurunea, umiliagarria edo iraingarria sortzea helburu edo ondorio duena.

- Diskriminatzeke agindua⁶: diskriminatzaileak dira pertsonak arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik diskriminatzeraz bultzatzea eta diskriminatzeke aginduak.
- Diskriminazioa, uste oker bat dela-eta⁷: Diskriminazioa, uste oker bat dela-eta kasu honetan gertatzen da: pertsona edo talde bati tratu diskriminatzailea ematen zaionean, hari buruzko iritzi okerra dela eta.
- Asoziazio bidezko diskriminazioa⁸: Asoziazio bidezko diskriminazioa gertatzen da pertsona edo talde batek, beste batekin duen harremanaren ondorioz, tratu diskriminatzailea jasotzen duenean.
- Diskriminazio anizkoitza⁹: Biktima hainbat kategoriatan (sexua, ideologia, erlijioa, jatorri etnikoa/arraza...) egotearekin lotuta dago, baina kategoria horiek ez dute zertan elkarrekin erlazionatu egon. Hau da, diskriminazio anizkoitzean arrazoi bat baino gehiago daude bereizita.
- Interseksionalitatea: gida honetan aurreikusitako kategoria batek baino gehiagok bat egiten dutenean eta elkarri eragiten diotenean, diskriminazio-mota espezifikoak eraginez.

Arrazismoa ¹⁰

Arrazagatik, koloreagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik edo jatorri nazional edo etnikoagatik, pertsona edo pertsona-talde baten mespretxua edo pertsona edo pertsona-talde baten nagusitasun-nozioa justifikatzen delako ustea da.

Xenofobia¹¹

Xenofobia, berriz, beste herrialde edo kultura batzuetako pertsonetara aurreiritzia, gorrotoa edo beldurra da. Komunitatetik, gizartetik edo nortasun nazionaletik kanpoko arrotzak direlako pertzepzio faltsuan oinarritzen da xenofobia.

Kasu askotan, zaila da arrazismoa eta xenofobia jokabide-motibazio gisa bereiztea; izan ere, ezaugarri fisikoetan dauden desberdintasunak auresuposatu ohi dira, "besteak" identitate komunitatik bereizteko. Hala ere, xenofobiaren adierazpenak ezaugarri fisiko berdinak dituzten pertsonen aurkakoak izan daitezke, baita ahaidetasuna dutenen aurkakoak ere, nazionalak

⁶ Ibid.

⁷ Ibid.

⁸ Ibid.

⁹ Ibid.

¹⁰ Europako Kontseiluaren Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Batzordearen (ECRI) Politika Orokorren 7. gomendia, 2017.

¹¹ Europako Kontseiluaren Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Batzordearen (ECRI) Politika Orokorren 15. gomendia, 2015.

kanpokotzat jotzen dituzten estatu edo eremuetara iristen, itzultzen edo emigratzen dutenean. Hau da, xenofobiak ideologiarekin¹² baino zerikusi handiagoa du estereotipoarekin eta aurreiritziarekin.

Antigitanismoa¹³

Arrazismo mota espezifikoa bat da, arraza-nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, diskriminazio historiko batek elikatzen duen gizagabetze eta arrazismo instituzional modu bat, besteak beste, indarkeriak, beldurraren diskurtsoak, esplotazioak eta diskriminazioak modu nabarmenenean adierazten dutena.

LGTBifobia

LGTBifobia lesbofobia, homofobia, transfobia, bifobia eta interfobia biltzen dituen kontzeptua da. Hainbat testu akademiko eta legeletan honela definitzen da: beren burua LGTBI gisa aitortzen duten pertsonen aurkako gutxiespena, beldurra, arbuioa, aurreiritzia edo diskriminazioa, hau da, lesbianak, gayak, trans, bisexualak eta intersexualak; baita halakotzat hartzen direnak ere, nahiz eta ez izan; edo beste edozein pertsona, bere sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, genero-adierazpenagatik, sexu-garapenagatik edo familia-taldeagatik.

Transexualitatearen¹⁴ nozioak honako egoera honi egiten dio erreferentzia: pertsona bati, bere genitalen arabera, jaiotzean suposatutako zitzaioren sexua ez datorrela bat pertsona horrek sentitzen duen eta bera dena dakien sexuarekin.

Europako Parlamentuaren¹⁵ arabera, LGTBifobia “arrazismoarekin, xenofobiarekin, antisemitismoarekin eta sexismoarekin konpara daiteke, eta eremu publiko eta pribatuetan hainbat modutan agertzen da, hala nola gorrotoa eta diskriminazioa bultzatzea, barregarri uztea eta hitzezko indarkeria, psikologikoa eta fisikoa, baita jazarpena eta hilketa ere”. Gainera, diskriminazio hori “ordena publikoaren, erlijio-askatasunaren eta kontzientzia-objektuorako eskubidearen justifikazioen atzean ezkututzen da askotan”.

Azkenik, garrantzitsua da adieraztea Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 51.1 artikulua LGTBifobia, indarkeria matxistaren forma espezifikotzat jotzen duela. Horrek aukera ematen du gaiari tresna publiko desberdinetatik heltzeko, 4.2 atalean ikusiko dugun bezala.

¹² Arrazismoaren, xenofobiaren, intolerantziaren eta beste intolerantzia modu batzuen bilakaera Espainian, Txosten-Inkesta. Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa, 2017.

¹³ Europako Kontseiluaren Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Batzordearen (ECRI) Politika Orokorraren 13. gomendioa, 2011.

¹⁴ 9/2019 Legea, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa.

¹⁵ Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2012ko maiatzaren 24koa, European homofobiari aurre egiteari buruzkoa (2012/2657(RSP)).

Gorrotozko gertakaria

Biktimak edo beste edozein pertsonak arrazistatzen, xenofobotzen edo bestelako intolerantzia-modutzen hartzen duen aurreiritzizko egintza, nahiz eta delitu ez izan.

Gorroto-delituak

Zigor Kodean araututa dago, eta ez da berariaz erabiltzen “gorroto-delituak” terminoa. Erregulazio konplexua da, askotariko jokabideak eta kasuak biltzen baititu. Izan ere, ez da erraza gure legegintza-testuinguruan “gorroto-delituak” definitzea (*hate crimes*, tradizio legegile anglosaxoian). EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren lantaldeak dimentsio bikoitza adierazten du:

- a. Delitu astunduak (ZKren 22.4. artikulua), motibazio jakin batekin edo eragingarri batekin egin direlako, hau da, egileak bere biktimaren egoera pertsonala, benetako edo soilik hautemandakoa (etnia, sexua, sinesmenak, etab.) ezaugarri duen estereotipoarekiko duen gorrotoan edo aurreiritzian.
- b. Egilearen benetako motibazioa alde batera utzita, baldintza pertsonal horietakoren bat dela-eta tradizionalki diskriminatu izan den gizarte-kolektibo bati karga iraingarria, umiliagarria edo larderiazkoa eragiten dioten delituak (ZKren 510. artikulua).

Laburbilduz, gida honen ondorioetarako, gorroto-delituak¹⁶ “edozein arau-hauste penal da, pertsonen edo jabegoen aurkakoak barne, zeinetan biktima, lokala edo arau-haustearen helburua benetan edo hautemandako lotura, begikotasun, filiazio, babes edo talde bateko kide izateagatik aukeratzen den, hala nola sexu-orientazioa edo genero-identitatea edo genero-adierazpen erreala edo hautemandakoa”.

Gorroto-diskurtsoa

EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko Lantaldeak adierazitakoari jarraituz, Zigor Kodean zigortutako gorroto-diskurtsoa gorroto-delituen adierazpen bat da, pertsonen kolektibo jakin batzuen aurkako indarkeria eta gorrotoa bultzatzeko giroa bultzatzen duena. Jarduera horiek, aurreiritziek gidatuta, diskriminazio-arrazoiengatik egiten dira, eta egoera iraingarria eta umiliagarria sortzen dute, biktima kolektibo jakin batekoa izatearen ondorioz. “Arrazoiak” terminoaren interpretazioak, kontsiderazio subjektiboari erreferentzia egin beharrez, frogatu beharreko egoera faktikoak egotea dakar, hala nola biktima tradizionalki diskriminatua izan den kolektibo batekoa izatea.

Azken batean, Ertzaintza bezalako erakundeen edo esparru akademikoaren beste definizio batzuk dauden arren, Eraberean sareak adostutakoa

¹⁶ Tolerantziari eta diskriminaziorik ezari buruzko erabakia, 4/03 zk. OSCE, 2003

proposatzen da. Horrela, gorroto-diskurtsoa¹⁷ “adierazpen bat da, hurkoari eta haren duintasunari eta oinarrizko eskubideei kalte egitea helburu duena, eta edozein motatako intolerantziaren adierazpen bat sustatu nahi duena. Zigor Kodearen 510. artikuluan dago araututa, non jokabide hauek zigortzen baitira:

- a. Bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragitea, zuzenean edo zeharka, talde baten edo haren parte baten aurka edo pertsona jakin baten aurka, talde horretako partaide izateagatik.
- b. Gorrotoa edo biolentzia sustatzen, bultzatzen edo pizten duen materiala produzitzea edo zabaltzea.
- c. Genozidio-delituak edo erlijio, etnia, jatorri, sexu, desgaitasun, gaixotasun edo sexu-orientazio jakin bat dela-medio taldeen edo pertsonen kontra egindako delituak ukatzea jendaurrean, edo delitu horiek gorestea.

Errepresalia diskriminatzailea¹⁸

Norbaitek tratu txarra edo ondorio txarren bat jasotzen duenean, sufritzen ari den edo sufritu duen diskriminazioa edo jazarpena saihesteko, gutxitzeko edo salatzeko asmoz, kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo edozein motatako errekurtsio bat aurkeztu duelako.

Biktimarioa edo Arduraduna

Biktimarioa da une jakin batean beste bati (hau da ekintzaren biktimari) min edo kaltea egiten diona. Kalte hori delitua izan daiteke ala ez.

Justizia errestitutiboa¹⁹

Justizia errestitutiboa justiziaren eredu alternatibo edo osagarria da, eta biktimari eragindako kaltea konpontzea du helburu. NBEren arabera, justizia errestitutiboa arazoak konpontzeko metodologia bat da, eta funtsezko printzipio honetan oinarritzen da: delituzko jokabideak legea urratzeaz gain, biktimak eta komunitatea ere zauritzen ditu. Prozesu horrek praktikara eramateko hainbat modu onartzen ditu, baina biktimaren eta salatuaren arteko gatazkatik kanpoko hirugarren pertsona batek esku hartzen du beti, azken horrek biktimari berak sortutako egoera gainditzen lagun diezaion.

3. Jarduteko printzipioak

Gida honetan proposatzen diren jarduerak, Eibarko Udalak gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edo LGBTIfobiko baten berri izatean edo ezagutzean, zenbait printzipiora egokitzen dira, eta printzipio horiek kontuan hartzea funtsezkoa da tartean diren eragile guztiek eta kasua artatzen, laguntzen edo bideratzen duten

¹⁷ Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Oinarrizko gida. Eraberean, 2020.

¹⁸ Id.3.

¹⁹ Hemendik aterata: <https://www.justizia.eus/justicia-restaurativa>

pertsonen hura garatzen duten bitartean. Jarraian zehazten dira.

3.1. Biktima beti erdigunean

Horrelako gertakari bat izan duen pertsona zentroan jartzeak berekin dakar, neurri handi batean, baina ez soil-soilik, bere premiak asetzera zuzentzea jarduera multzo bat, kontuan hartuta jarduera horiek doakoak, borondatezkoak eta unibertsalak direla; horrela, gorroto-delitu baten biktimatzat jotzen den pertsona orok eska dezake jarduera horiek aktibatzea, edozein dela ere bere bizileku-, herritartasun- edo nazionalitate-estatutua. Hauek dira azpimarratu nahi ditugun alderdi nagusiak:

Biktimari tratu egokia ematea

Udalak eta bertako langileek, teknikoak zein politikoak izan, ematen duten tratua errespetuzkoa, sentikorra, indibidualizatua eta diskriminaziorik gabea izango da. Entzute aktibotik eta enpatikotik abiatuko da, eta arreta berezia eskainiko die biktima adingabeei edo egoera bereziki ahulean dauden biktimei.

Biktima adingabeek eskubide osoak dituzte, beraz, hala tratatuak izango dira eta eskubideak erabiliko dituzte euren iritzia izateko gaitasuna kontuan hartuta. Momentu oro haur eta nerabeen interesak izan beharko du lehentasuna, eta adina eta egoera aintzat hartuta indarrean dagoen legeria espezifikoak ezarritakoaren arabera jokatu da.

Genero-ikuspegia kontuan hartuko da beti gertakarien arretan, kasu guztietan, eta bereziki, arrazoi arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoarekin bat egin dezakeen indarkeria matxistari dagokionez.

Konfidentzialtasuna

Kasuaren jakinarazpena jasotzean, hura arakatzean eta bideratzean, esku hartzen duten agente guztiek bermatu behar dute zorrotz errespetatzen dutela pertsonaren konfidentzialtasuna eta intimitatea, eta bermatu behar da haren identitatea edo gertakariaren berri ematea ez direla sozialki edo publikoki ezagutzera emango, are gutxiago ustezko erasotzaileari eta haren inguruneari dagokienez.

Autonomia errespetatzea

Bibliografia espezializatuak jasotzen duenez, biktimengan ohikoa da entzunak eta artatuak sentitzeko beharra izatea, erabakiak hartzeko aukera emango duen informazio argia eta zehatza jasotzea, eskura dauden baliabideei buruzko orientazioa ematea eta, batez ere, egoera mingarri eta konplexu baten aurrean azken erabakia haiengan dagoela onartzea. Batzuetan, haien erabakien azpian kultura- eta, bereziki, egoera-gakoei erantzuten dieten hainbat arrazoi daude, esplizituak edo inplizituak izan daitezkeenak. Horietako batzuk aipatzearen: egoera irregularrean egotea, laguntza-sare sozial edo komunitariorik ez izatea, biktima izateak dakarren estigmatizazioa eta salaketa gehitzea, administrazio-egoeratik eratorritakoak, errepresalien beldurra, kalte psikosozialari aurre egiteko mekanismoak... Beraz, salaketan urrats gehiago emateko edo erantzun instituzional eta sozial jakin bat

aktibatzekeo erabakia biktimarekin adostu behar da beti, inolako presiorik edo paternalismorik gabe, eta haren borondatea gainerako agenteen borondatearen gainetik jarri behar da.

Argitasuna eta azkartasuna

Biktimak erabaki ditzakeen baliabideei eta aukerei buruzko arreta-aukera eta informazioa modu argi eta azkarrean eskaini behar dira, baina, era berean, biktimak kudeatzeko duen gaitasunera egokitu behar da, bere emozio-egoeragatik, hala badagokio, eta aukera horietako bakoitzak dituen inplikazioen jakitun egin behar da. Hizkuntza irisgarria erabiliko da, bere egoerara egokitua eta ulermenean eta komunikazioan sor daitezkeen zailtasun bereziak kontuan hartuta. Hobe da erantzun mota hori emateko gaitasuna duten beste agente batzuegana bideratzea, biktimak adierazten dituen premien aurrean atzeratzea edo modu ez osoan edo desegokian egitea baino.

Bigarren mailako birbiktimizazioak saihestea

Biktimizazio-mota hori biktimak erakunde-sistemarekin duen harremanaren emaitza da, eta lotura estua du aurreko puntuan azaldutakoarekin.

Funtsezkoa da proposatutako ekintzak aktibatzearen ondorioz pertsonak egoera traumatikoa berpiztea eta biktima papera berriz hartzea saihestea. Hori bereziki ohikoa da, esate baterako, arreta ematen den bitartean, biktima behartzen denean gertatutakoak behin eta berriz kontatzera, hainbat instantziaren aurrean eta hainbat unetan. Ildo horretan, oso garrantzitsua da arreta hori gauzatzeko gaitasuna eta ezagutza duen pertsona batek ematen duela ziurtatzea, eta, hala badagokio, dagokion bideratzea egitea. Bideratzearen bidez, biktimek justiziarako sarbidea izan dezaten erraztuko da, bai eta babes- edo laguntza-funtzioak esleituta dituzten gainerako zerbitzu publiko eta asistentzialetarako ere.

3.2. Sareko lana

Gertakari arrazistei, xenofoboei, antigitanoei eta LGTBifobikoei erantzuteko gizarte gisa erabili ditugun tresnak hainbat erakunderen ardura dira, eta gizarte-eragileenak ere badira. Ildo horretan, bidegabekeria horren biktima artatzea lehentasuntzat duen erantzunak edo jardunak lankidetzara osoa eta leiala eskatzen die eragile horiei.

Gida honetan, premisa hori ez ezik, gehien ukitzen diren eragileen rola, funtzioak eta eskuduntzak identifikatu dira. Hori guztia Ararteko, Emakunde eta fiskaltza espezifikoak bezalako erakundeen eskuduntzak alde batera utzi gabe eta, halaber, pertsonen babesa bestelako diskriminazio-gertakarien aurrean, hau da, desgaitasunak, aporofobiak, eta abarrek eragindakoak.

3.3. Printzipio demokratikoetara egokitzea

Jarduera instituzionalerako protokolo honen helburua da Udalak biktimarekiko duen hurbiltasunetik erantzun bat ematea, baina inola ere ezin da izan bere eginkizunak gehiegikeriaz betetzeko arrazoia, ezta zuzenbide-estatu baten oinarritzko printzipio

demokratikoak alderantzikatzeke arrazoia ere. Ildo horretan, funtsezkoa da honako gai hauetaz jabetzea:

Botere-banaketa

Justizia administrazioak erabaki behar du egitateak egiazkoak diren, legez kontrako delituren bat diren eta, hala badagokio, biktimarentzat zein biktimarioarentzat izan behar dituen ondorioak. Beraz, ez da Udalaren egitekoa alderdi horien gainean jarrera hartzea; soilik eta behar bezain nabarmenak ez direnean, adierazle edo zantzu jakin batzuetan oinarrituta, ahal dela beste eragile instituzional batzuekin lankidetzan, egitateen egiantzekotasuna, premia eta larritasuna kontrastatzea, bere jarduera antolatzeke.

Errugabetasun-presuntzioa

Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, Udalaren jarduerak eta proposatutako ekintzen aktibazioak biktimarioaren errugabetasun-presuntziotik abiatu behar du, hura ezaguna denean. Erakundeen erantzunak biktimari arreta ematea eta herritarren bizikidetzaren lehengoratzea sustatu behar du, ez justiziarik ematea, ezta neurri eredugarriak hartzea ere. Alde horretatik, biktimarioari dagokion zigorra justizia-administrazioak ezarriko du, behar diren bermeak dituen prozesu batean, eta erakunde batek (tokikoa izanda ere) ezin izango ditu prozesu bikoitzak sustatu (gizarte- edo herri-mailan), ezta zigor gehigarriak ere, gizarte-zehapen gisa.

Justizia errestitutiboa sustatzea

Adierazitakoaren ildotik, eta gatazkak konpontzeko edo artatzeko modu gisa punitibismoa saihesten saiatuz, ziur aski delitu ez diren intzidenteetan, indarkeria fisikorik izan ez denean edo agenteek hala irizten diotenean, ahaleginak egingo dira komunitate-lanetik edo justizia errestitutibotik erantzunak aktibatzeke, biktima diskriminazio-egitateen aurreko egoerara itzultzeke bitarteko gisa.

3.4. Proportzionaltasuna erakundeen erantzunean

Aktibatzen diren jarduerak, batez ere gizarte-sentsibilizazioaren eta -salaketaren eremuan, proportzionaltasuna izan behar dute beti intzidenteak biktimarengan eta komunitate-bizikidetzan duen inpaktuarekin. Jarduera eta erantzun indartsuenak egoera larrietarako gorde behar dira beti, eta ez beste kasu batzuetan agortu.

Gainera, garrantzitsua da jabetzea gida hau ez dela Udala diskriminazio- edo indarkeria-egoeren aurrean orientatzen duen erreferentzia bakarra. Zehazki, indarkeria matxistei erantzuteko beste protokolo batzuk daude. Proposatzen diren jarduerak koherenteak izan behar dute bien artean. Diskriminazio-sistema estrukturalak indarkeria partikularrak eta espezifikoak elikatzen eta sortzen dituzte, eta, bataren eta bestearen arteko translazioa zuzena edo lineala ez den arren, koherentzia-maila jakin bat mantendu behar da.

4. Prozedurak

Udalak, gorrotozko gertakari baten berri duenean, aktibatu egingo du dagokion jarduketa. Jarduketa desberdina izango da kasu bakoitzean, biktimaren borondatearen, urgentiaren eta gertaeren inpaktuaren arabera. Jarraian, jarduketak sekuentzialki ordenatuta eta testu artikulatu batekin aurkezten dira, biktimari eman beharreko arreta eta erakundearen erantzuna errazteko.

4.1. Biktimari eman beharreko arreta

Sarbideko guneak

- 4.1.1 Udalak erreferentziazko harremanetarako modu bat ematen die herritarrei —konfidentziala eta herritar guztientzat eskuragarria— gorroto-gertakarien berri emateko:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Telefonoa: 943 70 84 40

Posta elektronikoa: gizartekintza@eibar.eus

Helbidea: Bista Eder 10, 4. Solairua

Ordutegia:

Neguan, astelehenetan 9:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara.

Asteartetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Udan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00era.

- 4.1.2 Harremanetarako bide hori beste salaketa-bide batzuen osagarria da, baina ez ditu ordezkatzen. Zentzu horretan, gehigarri gisa identifikatzen da honako sarbide hau:

Eibarko Udaltzaingoa

Telefonoa: 943 70 84 24 edo 092 zenbakira deituta

Helbide elektronikoa: udaltzaingoa@eibar.eus

Helbidea: Untzaga plaza, 1 (sarrera atzeko atean dauka)

Ordutegia: 24 orduz, urtean 365 egunetan

- 4.1.3 Udaltzaingoaren bidez iristen diren kasuak ahalik eta lasterren jakinaraziko zaizkio Gizarte Zerbitzuen arloari, bidezkoak diren polizia-jarduerei kalterik egin gabe.
- 4.1.4 Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiak (gorroto- eta diskriminazio-delituen unitatea edo hark eskuordetzen duena) udalerrian (aurreko 48 orduetan) bere aurrean

salatu diren gorroto-istiluen berri emango dio Udaleko Alkatetzari, gizarte-sentsibilizazioari eta -salaketari buruzko jarduerak aktibatzea beharrezkoa den baloratzeko. Informazio horrek biktimaren konfidentziasunerako, intimitaterako eta datu pertsonalen babeserako eskubidea errespetatuko du.

Biktimak, salatzaileak eta lurralde-eremua

- 4.1.5 Gertakaria biktima ez den pertsona batek jakinarazten badu, saiatuko da biktima nor den jakiten, harekin harremanetan jartzen eta haren esanetara jartzen.
- 4.1.6 Biktima nor den jakin ez arren, gertakariaren egiaztapen sinesgarria badago eta intzidentea eragin pertsonal eta sozial handikotzat hartzen bada, gizartea sentsibilizatzeko eta salatzeke 4.3 paragrafoan aurreikusitako jarduerak aktibatu ahal izango dira.
- 4.1.7 Gertakaria udalerriko herritar batek jasan badu, baina udalerritik kanpo, gertakariaren, larritasunaren, gertaeren dataren, inguruabarren eta abarren arabera balioetsiko da nola jokatu.
- 4.1.8 Biktima adingabea bada, haurraren edo nerabearen interesa bermatzeak izango du lehentasuna, eta, ildo horretatik, indarkeriazko gertakarien kasuan, berehala jakinaraziko zaio Ertzaintzari, eta haurraren edo nerabearen egoerara egokitutako babes-neurri guztiak hartuko dira.
- 4.1.9 Gertakariak genero-indarkeria edo indarkeria matxistaren zantzuak baditu edo halakotzat har badaiteke, eremu horretarako dauden baliabideak eta mekanismo espezifikoak jarriko dira abian .

Harrera eta lehen arreta

- 4.1.10 Ahal dela, udal-teknikariek eman beharko diote arreta, informazioa eta orientazioa ustezko biktimari, Gizartekintza Sailak egindako honako banaketa honi jarraituta:
 - 4.1.10.1 Gertakaria arrazista, xenofobo edo antigitanoa bada, kultura aniztasuneko pertsonal teknikoak.
 - 4.1.10.2 Gertakarien motibazioa LGBTIfobikoa bada, Berdintasuneko pertsonal teknikoak. Puntu honetan baloratuko da honako protokolo hauek lehentasunaren arabera edota aldi berean ezartzea:
 - 4.1.10.2.1 Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arreta hobetzeko jarduera- eta koordinazio-protokoloa (2024ko otsaila).
 - 4.1.10.2.2 Aisialdiko eta jaiegunetako guneetan eraso matxisten aurrean jarduteko protokoloa.
 - 4.1.10.3 Intzidenteen motibazioa anitza bada edo interseksionalitatea antzematen bada, kultura- eta berdintasun-aniztasuneko langileek batera

baloratuko dituzte.

- 4.1.11 Gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edo LGTBIfobiko baten berri emateko Udalarekin harremanetan jartzen den pertsona oro behar bezala artatu behar da. Horrek berekin dakar haren beharretara egokitutako arreta pertsonalizatua ematea, ahal dela arretaren jarraipena eta osotasuna bermatzen saiatuta, nahiz eta horretarako hainbat administrazio, agente edo sistemaren elkarlana behar izan. Gertakariari buruzko informazio guztia biltzen saiatuko da (data, lekua, ordua, lekukorik balego), biktimaren bizipena eta kontakizuna zalantzan jarri gabe, eta emandako informazio guztiaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatuz. Biktima bere izenarekin eta bere burua identifikatzeko erabiltzen duen sexu/generoarekin tratatuko da, bere dokumentazioan agertzen direnak alde batera utzita.
- 4.1.12 Biktimaren une pertsonalerako informazio erabilgarria eta egokia emango da. Helburuetako bat, beharrezkoa izanez gero, emozioei eustea da, eta, horrez gain, haien eskubideei buruzko informazioa ematea, bai eta eskubide horiek erabiltzeko baldintzei buruzko informazioa ematea ere, erabakitzeko gaitasuna azpimarratuz, eta horri buruz egiten duen hautua edozein dela ere, errespetatu egingo da.

4.2. Bideratzeak

4.2.1 Lehenik eta behin baloratu behar da biktimak behar duen arretaren barruan urgentzia duen alderdiren bat dagoen. Ildo horretan, arreta, informazioa eta orientazioa eman duten udal-teknikariei bi aukera ematen zaizkie lehen bideratze baterako:

4.2.1.1 Osakidetzako osasun-zentro hurbilenera, kalte fisiko edo emozionalik badago. Garrantzitsua da mediku-partea egotea lesioak adierazteko.

4.2.1.1 Udaltzaingoaren edo Ertzaintzaren komisariara, udalari jakinarazten zaion intzidenteak delitu larriak edo indarkeriazko ekintzak eragin baditzaie. Arreta medikoa jaso ondoren Ertzaintzara bideratzen bada, garrantzitsua da lesioen partea eranstea. Betiere, poliziaren aurreko salaketan argi jaso behar da, jasotako hitzen edo ondoriozta daitezkeen beste polaritate adierazle batzuen arabera, gertakariaren kutsu arrazista, xenofobo, antigitano edo LGTBIfobikoa.

4.2.2 Tokiko teknikarien baliabideen eta biktimak adierazten dituen beharrian eta interesen arabera, lehen bideratze horiek beti lagunduko dira.

4.2.3 Artatzeko orduan hartu beharreko bigarren erabakia agente diskriminatzailearen egoera identifikatzea da. Publikoa bada, Arartekora bideratuko da. Pribatua izanez gero, arretarekin jarraituko da.

4.2.4 Hirugarren erabakiak lotura du zerbitzu espezifiko eta/edo

espezialdutakoekin eta harremana du honako hauekin:

4.2.4.1 Intzidenteak zuzenean edo zeharka eragindako gizarte-kalteberatasuneko egoerak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan jorratuko direnak.

4.2.4.2 Arreta psikologikoa

4.2.4.3 Orientazio juridikoa

4.2.5 Eibarko Udalak baliabide propiorik ez duenean aurretik aipatutako zerbitzuak ematen direla ziurtatzeko, biktimarekin bat eginda, baloratuko du beste zerbitzu eta baliabide publiko eta pribatu batzuetara bideratzea, bere eskubideez baliatzeko. Horien artean:

4.2.5.1 Biktimaren Arretarako Zerbitzua

4.2.5.2 *Eraberean*, tratu berdintasunerako eta diskriminazio ezarako sarea

4.2.6 Atal honetan jasotako deribazio guztiek ekarriko dute Eibarko Udala baliabide eta zerbitzu bakoitzarekin zuzenean harremanetan jartzea, kasuaren harrera hobea eta arinagoa bermatzeko, behar denean aurrez aurre lagunduta, birbiktimizazioak saihestuz eta konfidentziasuna bermatuz.

4.3. Erakundeen erantzuna

Gertakariaren kontrastea eta balorazioa

4.3.1 Herritarrak sentibilizatzeko dakarten erakunde-jarduerak aktibatu aurretik, gertakariaren alde aurreko kontrastea egin behar da, jarraian zehazten diren baldintzetan.

4.3.2 Kontrastea Alkatetzak egingo du (edo hark eskuordetzen duen eta gai hauetako batzuetan eskumena duen zinegotzigoak: Giza Eskubideak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna edo Bizikidetzak), aurreko faseetan esku hartu duten udal-teknikariek egindako txosten batean oinarrituta. Txosten horretan, honako gai hauei buruzko izapideak eta informazioa emango dira.

4.3.2.1 Gertakariaren egiazkotasunaren zantzuak

4.3.2.2 Gertakariaren motibazioari buruzko zantzuak, arrazismoari, xenofobiari, LGTBifobiari eta diskriminazio anizkoitzari dagokienez. Horretarako, anizkoiztasun-adierazleen²⁰ azterketa bat baliatuko da tresna gisa.

4.3.2.3 Gertakariak biktimarengan izandako eragina eta haren egunerokoan duen isla, 4.3.5 atalean jasotako sailkapenaren arabera.

4.3.3 Udalak hainbat baliabide eta eragileren bitartez egin dezake kontrastea.

4.3.3.1 Biltzen, Berdindu edota biak, gertakariaren izaeraren arabera. Bereziki,

²⁰ Helbide honetan eskuragarri: [https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/indicadores-de-polarizacion](https://www.ert zaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/indicadores-de-polarizacion)

gorroto-diskurtsoarekin zerikusia duten edo diskriminazio-izaerari buruzko zalantzak sortzen dituzten edo udalerriko komunitate-bizikidetzan eraginik dagoen kasuetan.

- 4.3.3.2 Udaltzaingoa eta Ertzaintza. Bereziki, delitu larrien edo indarkeriaren bidezko gertakarien kasuan. Komunikazioa zuzenean Alkatetzatik bideratuko da Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiarekin (diskriminazio eta gorroto- gertakarien unitatea) edo azken horrek eskuordetzen duenarekin.
- 4.3.4 Udalak biktimaren baimen esplizitua eskatuko du erantzun instituzionalik aktibatu aurretik. Adostasun hori ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke, baina, nolahi ere, argia, kontzientea eta irmoa izan behar du. Argia, onartzen duen neurrian. Irmoa, behin betiko baimena delako. Horrek, halere, ez du eragotzi behar biktimaren iritzia edozein unetan aldatzeko aukera. Kontzientea izan behar da, zehatz-mehatz dakielako zer jarduera aktibatuko diren eta horrek esan nahi duela jendaurrean egon daitekeela, nahi ez bada ere.
- 4.3.5 Erakundeen erantzuna orientatzeko, eta balorazio penala alde batera utzita, Udalak gertakariaren larritasuna ebaluatuko du, bai biktimaren ikuspegitik, bai komunitate-bizikidetzan izan dezakeen eraginetik. Indarkeria mota hauek eta haien eragina gertatzen diren testuinguruaren eta moduaren arabera dira; hortaz, fokua ez da jarri behar indarkeria hauek adierazten diren moduan bakarrik; aitzitik, biktimengan eta elkarbizitzan duten ondorioei ere arreta jarri behar zaie. Protokolo honen helburua ez da indarkeriak mailakatzea, inpaktu horien ebaluazioan orientazioa eskaintzea baizik. Horretarako irizpide hauek proposatzen ditu:
- 4.3.5.1 Inpaktu arina*
- Pintada puntualak, partikular jakin bati zuzendu gabeak eta anonimoak.
 - Partikularren arteko hitzezko erasoak, garrantzi komunitariorik gabekoak.
 - Establezimenduetan sartzea debekatzea.
 - Partikularren arteko kontaktu fisikoa, motibazio diskriminatzailea duten gatazken testuinguruan.
 - Larriak edo oso larriak ez diren eta Zigor Kodearen arabera balizko delitutzat jo daitezkeen beste gorabehera batzuk.
- 4.3.5.2 Inpaktu larria*
- Kolektiboak publikoki jazartzeko eta umiliatzeko kanpaina publikoak (hauteskunde-testuingurutik kanpo)
 - Partikularren arteko hitzezko erasoak, garrantzi komunitarioa dutenak.
 - Partikularren arteko eraso fisikoak.
 - Pertsona-taldeen arteko eraso fisikoak, egiten diren lesioak alde batera utzita.
 - Propietateak suntsitzea edo erasotzea, pertsona edo talde jakin batzuen aurkako pintada iraingarriak, estigmatizatzaileak edo umiliagarriak barne.

- f) Diskriminazio anizkoitzeko inguruabarrak dituzten gorabehera arinak.
- g) Zigor Kodean balizko delitutzat jotzen diren baina oso larritzat hartzen ez diren beste gorabehera batzuk.

4.3.5.3 Oso inpaktu larria

- a) Kolektiboak publikoki jazartzeko eta umiliatzeko kanpaina publikoak, haien aurkako indarkeria bultzatuz (hauteskunde-testuingurutik kanpo).
- b) Jazarpena, denboran jarraitua eta etengabea.
- c) Bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten lesioak eragiten dituzten gertakari larriak.
- d) Diskriminazio anizkoitzeko inguruabarrak dituzten gertakari larriak.
- e) Halakotzat jotzen diren beste gorabehera batzuk.

4.3.6 Kalifikazioa oso larritik larrira eta larritik arinera jaitsi ahal izango da inguruabar objektiboetan oinarrituta eta kontsultatutako agenteen irizpidearen arabera, hala gomendatzen denean. Gertakariaren biktimari horren berri emango zaio.

Jarduteko konpromisoa

4.3.7 Motibazioa, egiazkotasuna eta larritasuna behar bezala egiaztatu ondoren, Alkatetzak (edo berak eskuordetutako zinegotzigoak) honako jarduera instituzional hauek adostuta eta koordinatuta aktibatzea proposatuko die gainerako udal-taldee, bai eta sektore-eremuan eskumena duten udal-organoei ere, hala nola kontseiluei, lan-mahaiei edo lantaldeei eta tokiko gizarte-eragileei.

4.3.7.1 4.3.5.1.a atalean jasotako gorabeheren kasuan, pintadak ezabatuko dira. agertu diren tokiko jabetzaren baimenarekin, titulartasun pribatukoak badira. Diskrezioz egingo da, mezu diskriminatzailearen beraren edukia are gehiago sustatzen eta zabaltzen ez laguntzeko.

4.3.7.2 4.3.5.1 atalean jasotako gainontzeko intzidenteen kasuan, ohartarazpen pribatua egingo zaio ustezko biktimarioari, eta partikularren arteko komunitate-jarduerak aktibatuko dira partikularren artean, betiere haiek ados badaude. Horretarako, batez ere *Eraberean* sarea bezalako baliabideetara bideratuko dira.

4.3.7.3 4.3.5.2.a, b, c eta f ataletan jasotako intzidenteen kasuan albiste bat argitaratuko da web-orrian eta udal-aldizkarian, I Eranskinen jasotakoaren arabera, gertakariaren berri izan eta hurrengo 72 orduetan.

4.3.7.4 4.3.5.2.d, e ta g ataletan jasotako gertakarien kasuan tokiko bozeramaileen batzordeak II Eranskinaren arabera adierazpen instituzional bat onartuko du, gertakariaren berri izan eta 72 orduko epean. Adierazpen hori herritarrei helaraziko zaie udalaren webgunearen eta udal-aldizkariaren bidez.

4.3.7.5 4.3.5.3. b eta d ataletan jasotako gertakarien kasuan, 4.3.7. 4 puntuan

jokatuko den modu berebean jokatuko da.

- 4.3.7.6 4.3.5.3 atalean jasotako gertakarien kasuan tokiko bozeramaileen batzordeak III Eranskinaren arabera adierazpen instituzional bat onartuko du, gertakariaren berri izan eta 72 orduko epean. Adierazpen hori herritarrei helaraziko zaie Udalaren webgunearen eta udal-aldizkariaren bidez. Era berean, gertakaria jazo eta hurrengo egunean, 19:00etan elkarretaratzea egingo da Udaletxearen aurrean honako goiburua honekin: “Eibartarrok ez dugu onartzen arrazakeriarik/antijitotasunik/LGTFobiarik, Aniztasunean, bizikidetzaren alde!”
- 4.3.7.7 Gertakaria udalerriko edo auzoetako herriko edo zaindariaren jaietako ospakizunen testuinguruan gertatzen bada Jai Batzordearekin (edo antzeko instantziarekin) batera baloratuko da 4.3.7.3, 4.3.7.4 eta 4.3.7.6 ekintzez gain, ospakizunak, edo ospakizun horietan programatutako ekitaldiaren bat guztiz edo zati batean bertan behera uztea, edo kontzentrazioa jai-eremu edo -esparruan egitea.

Jakinarazpen publikoa

- 4.3.8 Hainbat arrazoirengatik (larritasuna, gizarte-eragina edo hartzaile den kolektiboan...) komunikabideek intzidenteari buruzko informazioa ematen dutenean, ezinbestekoa da Udalak komunikazio-erantzun bat ematea 4. puntuan, 4.3.7.3an eta ondorengoetan jasotako komunikatuez, albisteez, adierazpen instituzionalez edo prentsa-oharrez harago.
- 4.3.9 Gomendagarria da adierazitako komunikazio-erantzuna, ahal den neurrian, udal-taldeekin eta sektoreko udal-organo eskudunekin informatzea eta adostea, hala nola kontseiluekin, mahaiekin edo lantaldeekin eta tokiko gizarte-eragileekin. Informazio hori emateko orduan, biktimaren konfidentzialtasun- eta intimitate-eskubidea errespetatzen dela bermatuko da.
- 4.3.10 Nolanahi ere, erantzun komunikatiboa intzidentea kudeatzeko eskumena duten beste erakunde batzuekin koordinatu beharko da, hala nola Ertzaintzarekin (Idazkaritza Nagusiaren bidez) eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzarekin (edo hura ordezkatzeko duen edo eskuordetzen duen zuzendaritzarekin), ahalik eta erantzun indartsuena eta eraginkorrena emateko.
- 4.3.10.1 Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak (edo haren ordezkakoak edo hark eskuordetutakoak) laguntza teknikoa emango dio Udalari, ahal duen neurrian, baldin eta Udalak aurreikusten badu bere baliaideekin ezin izango diela erantzun komunikabideen eskaerei.
- 4.3.11 Komunikazio-erantzunak ez du inola ere eman edo iragazi beharko, nahita edo ustekabean, ikerketa arriskuan jartzen duen biktimari edo intzidenteari buruzko daturik, eta biktimaren konfidentzialtasun- eta intimitate- eskubidea

errespetatzen dela bermatu beharko du. Edozein eduki edo ikuspegi sentzazionalista saihestuko da.

4.3.12 Udalak ematen duen komunikazio-erantzunak hiru dimentsio izan behar ditu beti:

4.3.12.1 Erakundeak eta herritarrak biktimari laguntzen ari direla adieraztea, bai eta gertakariak kolektibo hartzaileari eragiten dizkion frustrazio-, min- eta beldur-sentimenduak ere. Erakundeen arteko koordinazioari, protokolo hauen existentziari eta bestelako laguntza-zerbitzu eta -baliabideei balioa emango zaie, eta gorabehera guztiak salatzen animatuko da.

4.3.12.2 Gertakaria eragin duen gorroto espezifikokoaren deslegitimazio soziala (arrazismoa, xenofobia, antigitanismoa edo LGBTIfobia) argi eta garbi adieraziz haren sustraia, haren erantzule den biktimarioaren erantzukizun eskusiboa, eta ez direla gertaera isolatuak, baizik eta aurre egin beharreko arazo soziala.

4.3.12.3 Herritar guztiak orientatzea, Giza Eskubideen testuinguruan errespetuzko bizikidetzara inklusiboa eraikitzeke. Era horretako gertakariak herritar guztiak interpelatzen dituztela adieraziko da, eta dimentsio sozial eta estrukturala dutenez, horiei aurre egiteko konpromiso kolektiboa eta indibiduala eskatzen digute.

4.3.13 Komunikazio-erantzunak une oro saihestuko du biktimaren ezaugarrietan, ekintzetan edo portaeretan eragitea, hala nola haren janzkeran, nortasunean, lanbidean, osasun-egoeran eta abarretan, biktimarengan estereotipazioak indartzen edo erruduntasun-nozioak indartzen baitituzte.

4.3.14 Une oro saihestuko da erreferentzia egitea jatorri nazionalari, etnikoari, erlijio-sinesmenei edo biktima-egilearen antzeko ezaugarriari, baldin eta praktika txarra bada eta pertsonen kolektiboari buruzko estereotipo bidegabeak indartzen badira.

4.3.15 Hala egin behar izanez gero, biktimak bere burua identifikatzen duen izena eta sexua/generoa erabiliko dira beti, salbuespenik gabe, haren dokumentazioan agertzen direnak alde batera utzita.

4.3.16 Gertakaria ikertzen ari diren kasuetan edo gorroto-kalifikazioari dagokionez eztaba daezina ez denetan, atal honetan adierazitako gainerako komunikazio-esparruez gain, Udalak adieraziko du gertakaria argitzen laguntzen ari dela, beste erakunde publiko batzuekin koordinatuta, lan hori egiten duten langile espezializatuak daudela, eta ahalik eta zuhurtzia handienaz jokatu behar dela erabiltzen den informazioaren aurrean, hura baieztatzeko erabateko segurtasuna izan arte eta egoera horren atzean espekulazioek eragindako pertsonak eta familiak daudela.

4.4. Erregistro estatistikoa

4.4.1 Udalak gorabehera horien berri izan badu, dagokion instantziari jakinaraziko

zaio, estatistika-erregistroa egin dezan. Informazio hori emateko, biktimaren konfidentzialtasun- eta intimitate-eskubidea errespetatzen dela bermatuko da.

4.4.1.1 Gertakariak Ertzaintzan edo Epaitegian salaketarik eragiten badu, horiek sartuko dute ofizioz beren estatistiketan.

4.4.1.2 Gertakariak ez badakar salaketarik Ertzaintzan edo Epaitegian, *Eraberean* sarera bidaliko da haren oinarrizko informazioa, urteko txostenean sar dezan.

4.5. Bestelako motibazio eta delituak

Diskriminatutako kolektiboetan, zuzeneko indarkeria ez da soilik delitu eta gorroto-gertakari gisa agertzen. Era berean, delitu mota jakin batzuen biktima izateko ahultasun handiagoa dago, delitu horien motibazioa ez bada beharrezkoa edo nagusiki fobikoa edo diskriminatzailea. Horrelako delituek, zenbaitetan, eragin psikosoziala izan dezakete biktimarengan eta gorroto-delituen antzeko komunitateetan.

Gorroto-delituen salbuespenezko esparrua diskriminazio-motibazio hori ez duten delituetara zabaldu gabe, gomendagarria da gida honetan jasotako esparru batzuk baliatzea eragiten dituzten ondorioei erantzuteko.

Horrelako delituen aurrean, gida honetan aurreikusitako jarduera batzuk aktibatzeke egokitasuna edo aukera baloratuko da, gizarte-laguntzari, sensibilizazioari eta komunikazio publikoari dagokienez, eta beste mota horretako errealitate kriminalen errealitate espezifikora egokituko dira.

Era berean, protokolo honetan jasotako motibazioek Euskadin salatzen diren gorroto-istiluen ehuneko nabarmen bat jasotzen badute ere, ezin da ahaztu badirela beste kolektibo batzuk beren erlijio-sinesmenak, adina, gaitasun fisikoak, intelektuala, egoera sozioekonomikoa, osasun-egoera, egoera serologikoa eta abar direla-eta diskriminazioa jasaten dutenak.

Ahal den neurrian, Eibarko Udalak beste gorroto-arrazoi horiei erantzuteko konpromisoa adierazten du, eta horretarako protokolo honen edukian beharrezkoak diren egokitzapenak egiten ditu.

4.6. Diskriminazioaren aurkako entzumen-sare lokala

Eibarko Udalak diskriminazioaren aurkako konpromisoa duten eragile publiko, sozial eta pribatuen sare lokala sustatuko du. Sare horren helburu nagusia Eibarko sare komunitarioa kapilarizatzea edo zabaltzea da, gorroto-gertakari guztiek eta biktima guztiek entzumen-puntuak izan ditzaten, protokolo honetan ezartzen diren baliabideetara bideratu ahal izateko.

Erantzukizunaren eta/edo konpromisoaren maila desberdina izango da agentearen titulartasunaren, berdintasunaren eremutik duen hurbiltasunaren edo profesionalizazio-mailaren arabera.

Eragile horiek bereizgarri espezifikoekin identifikatu ahal izango dira, protokolo honetatik abiatuta sustatzen direnak, biktima izan daitezkeenentzat ikusgai egiteko eta bizikidetzaren eta giza eskubideen aurkako jokabide mota horien aurkako borrokak dakarren gizarte-akordio zabala erakusteko.

Bereizgarri hori eskuratzeko, nahitaezkoa izango da agente bakoitzak bere konpromisoa egiaztatu izana. Horretarako, sareak deitutako bilera batera joan beharko du urtean behin, eta baita Udalak gaiari buruz emandako prestakuntza espezifikoren batera ere.

4.7. Protokoloaren jarraipena

Eibarko Udalak gorroto- eta diskriminazio-gertakarien jarraipena egiteko mahai bat eratuko du, gutxienez urtean behin bilduko dena jarduera-memoria bat egiteko eta protokoloa hobetzeko ekintzak ezartzeko aukera ebaluatzeko.

Mahai hori honako hauek osatuko dute: politikariek (Alkatetzak edo hark eskuordetzen duen zinegotzigoak), kultura-aniztasuneko, berdintasuneko eta gizarte-zerbitzuetako tokiko teknikariek, Udaltzaingoaren ordezkariak, bai eta diskriminazioaren aurkako tokiko entzute-sareko bi ordezkariak ere. Udalerritik kanpoko gaian espezializatutako beste agente batzuk ere gonbidatu ahal izango dituzte, behatzaile gisa.

5. Bideratze-, kontraste eta koordinazio-baliabideen zerrenda

Jarraian, protokolo honetan aipatutako agente nagusien ordutegiak eta haiekin harremanetan jartzeko bideak adierazten dira

Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusia.

Larrialdiak EZ direnerako telefonoa: 900 103 584

WhatsApp: 677 999 555

SMSa: 677 999 555

Larrauri Mendotxe bidea 18.

48950 Erandio (Bizkaia).

Biktimari laguntzeko Zerbitzua

Barakaldo

Bide Onera plaza, z/g, Solairuarta
48901 Barakaldo, Bizkaia

Telefonoa: 944001031

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

Helbide elektronikoa: SAV48BK1@justizia.eus.

Bilbo

Ibañez de Bilbao, 3.a, Beheko solairua
48001 Bilbao, Bizkaia

Telefonoa: 900400028 – 944016487

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

Helbide elektronikoa:

sa:v481@justizia.eus.

Donostia-San Sebastian

Kalkutako Teresa Plaza, 1, Lehen solairua
20012 Donostia (Gipuzkoa)

Telefonoa: 900100928 943000768

Ordutegia: 9:00etatik
14:00etara.

Helbide elektronikoa:

sa:v201@justizia.eus

Red Eraberean

Bizkaia

CITE CCOO Bizkaia (944 243 424) citebizkaia@euskadi.ccoo.es

Errespetuz (675 459 317) errespetuz@hotmail.com

Kale Dor Kayiko (691 674 414) eraberean@kaledorkayiko.org

Nevipen (946 526 989) nevipen@nevipen.org

Bizigay (605 724 839) bizigay@gmail.com

Amuge (946 038557) amuge.elkartea@gmail.com

Anitzak (613 021193) anitzakbilbao@gmail.com

Gipuzkoa

AGIFUGI (943 248 086) asociacion@agifugi.org / eraberean@agifugi.org

Gehitu (943 451 722) infasis@gehitu.org / info@gehitu.org

SOS Arrazakeria (943 321 811) eraberean@mugak.org

Biltzen.

Bizkaia

Telefonoa: 944 001 900

Ordutegia: 9:00-17:30

biltzen@biltzen.org

Gipuzkoa

Telefonoa: 688 648 745

Berdindu

Bilbo

Ramón y Cajal, 2

Telefonoa: 946 453 322 y 617 813 08

berdindu.bizkaia@gmail.com

Donostia-San Sebastian

Mikelete, 20

Telefonoa: 943 216 551 y 688 769 865

berdindu.gipuzkoa@gmail.com

Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza

Donostia-San Sebastian kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: 945 016 62

derechoshumanos@euskadi.eus

6. ERANSKINAK

I. Eranskina. Udal-webgunerako eta –aldizkarirako albistea

Gure herrian azkenaldian izandako gertakarien aurrean, hauxe nahi dugu:

- Talde politikoen erabateko adostasunetik eta irmotasun osoz adieraztea jarrera, jokabide eta ekintza diskriminatzaileak, kasu honetan arrazista eta xenofobo/antigitano/LGTBIfobikoak, erabat onartezinak direla eta gure erabateko arbuioa dutela.
- Gure herrian/identitate sexogenerikoetan, orientabideetan eta praktika sexualetan aniztasun kulturean, jatorri eta sinesmen erlijiosoetan elkarbizitza aldarrikatzea. Gure gizartea anitza eta plurala izan zen, da eta izaten jarraitu nahi du. Gero eta gehiago. Eta horrek harrotu egiten gaitu eta oparotasun handiagoko aukera bat da guztiontzat.
- Eibarko bizilagunen arteko loturak eta harreman onak estutzeko deia egitea. Gehiago partekatu, elkarri gehiago entzun, gehiago errespetatu eta estereotipoetatik, aurreiritzietatik eta diskriminaziotik libre izateko deia.

Askotariko Eibar baten alde! Berdinen arteko bizikidetzaren alde!

II. Eranskina. Adierazpen instituzionala

Eibarko Udaletik, duela egun batzuk gure herrian izandako gertakarien berri ematen dugu, eta herritarrei mezu argia bidaltzen diegu.

Udal honetatik, diskriminazio era guztiak, eta bereziki arrazismoa eta xenofobia/antigitanismo/LGTBIfobia, desagerrarazteko konpromisoa berretsi nahi dugu. Zentzu honetan, berretsi egiten dugu kulturen arteko bizikidetzaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa, sexu- eta genero-aniztasunaren alde.

Zehazki, beste pertsona batzuen aurka erabilitako indarkeria oro gaitzesten dugu, larruazalaren beste kolore bat, beste jatorri geografikoaren, kulturaren edo erlijio-sinesmenen/beste identitate, adierazpen, orientazio edo sexu-praktika bat izateagatik.

Era berean, Eibarko bizilagunen arteko loturak eta harreman onak estutzeko deia egiten dugu. Gehiago partekatu, elkarri gehiago entzun, gehiago errespetatu eta estereotipoetatik, aurreiritzietatik eta diskriminaziotik libre izateko deia.

III. Eranskina. Adierazpen instituzionala eta kontzentrazio-deialdia

Eibarko Udalak erabateko gaitzespena adierazi nahi du, 20XXX XX egunean izandako gertakarien aurrean. (azalpen txikia, zehaztasunetan sartu gabe)

Udal honetatik, diskriminazio era guztiak, eta bereziki arrazismoa eta xenofobia/antigitanismo/LGTBifobia, desagerrarazteko konpromisoa berretsi nahi dugu. Zentzu honetan, berretsi egiten dugu kulturen arteko bizikidetzaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa, sexu- eta genero-aniztasunaren alde.

Zehazki, beste pertsona batzuen aurka erabilitako indarkeria oro gaitzesten dugu, larruazalaren beste kolore bat, beste jatorri geografikoaren, kulturaren edo erlijio-sinesmenen/beste identitate, adierazpen, orientazio edo sexu-praktika bat izateagatik.

Era berean, Eibarko bizilagunen arteko loturak ea harreman onak estutzeko deia egiten dugu. Gehiago partekatu, elkarri gehiago entzun, gehiago errespetatu eta estereotipoetatik, aurreiritzietatik eta diskriminaziotik libre izateko deia.

Azkenik, Udalak bat egiten du eta herritar guztiei dei egiten die hori egin dezaten (gertatu dena) gaitzesteko kontzentrazio-deialdiarekin:(e)koren(e)an, Udaletxeko plazan.